



KOLA-ONDESTEKO EBAKUNTZA AURREKO PRESTAKETA DIABETIKOENTZAKO CITRAFLEET® HARTUZ

TEM/TAMIS EBAKUNTZA OSPITALERATZEN ZAITUZTEN EGUNEAN BERTAN

1.-KOLONEKO PRESTAKUNTZA MEKANIKOA

Ebakuntza kirurgikoaren aurreko eguneko 16:00etan HASI BEHARKO DUZU PRESTAKETA HARTZEN.

Une horretatik aurrera EZIN izango duzu elikagai solidorik hartu ospitaleratu arte.

16:00etan: CITRAFLEET®-EN 1. DOSIA: diluitu lehenengo zorroa 500 ml-tan; edan disoluzio hori. Ondoren, edan 250 ml ur 15 g azukre edo 250 ML edari isotoniko, Aquarius limoi edo laranja motakoak (ez aukeratu light edo zero bertsioa, gutxieneko glukosa edo azukre kopuru bat eman nahi baitugu, hipogluzemia saihesteko). Ondoren, edan gutxienez 1,5 litro ur edo BAIMENDUTAKO LIKIDO ARGIAK (URA, INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

20:00etan: CITRAFLEET®-EN 2. DOSIA: diluitu bigarrena 250 ml-ko uretan. Ondoren, edan 250 ml ur, 15 g azukrerekin edo 250 ML edari isotoniko, Aquarius limoi edo laranja motakoak (ez aukeratu light edo zero bertsioa, gutxieneko glukosa edo azukre kopuru bat eman nahi baitugu, hipogluzemia saihesteko). Ondoren, edan gutxienez 1,5 litro ur edo BAIMENDUTAKO LIKIDO ARGIAK (URA, INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

Ospitaleratu baino 2 ordu lehenago: ezinbestekoa da ezer ez hartzea (ezta urik ere).

2.- CLEXANE 40 MG HARTZEA, 20:00ETAN, EBAKUNTZA KIRURGIKOAREN AURREKO EGUNEAN (BEHARREZKOA BADA)